



TXARANGAK ETA MOZORROAK UZTARTURIK

Sukaldeko eta San Esteban auzoko koadrilakoak txaranga-konpartsa edo konpartsa-txarangen adibide dira >7

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Igandea
2008-02-03

VIURTEA 1.353.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA



WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Danborren ostean, txantxoak

INAUTERIAK 2008 Atzokoan danborradak izan ziren nagusi: arratsaldean gaztetxoak eta gauean helduak

GAUR Zaldunita eguna da gaurkoa, hau da, mozorroen, karrozen eta konpartsen eguna, besteak beste 4-5



Samaniegoko, Hirukideko eta Laskoraingo 500 gaztetxo inguru bildu ziren atzoko danborradan. Giro polita zabaldu zuten herriko kaleetan. EZEIZA

A Argazki zaharra



Erregina aukeratzen zeneko garaia

TOLOSA ■ Guztiok dugu gogoan, duela gutxira arte egiten baitzen, Inauterietan Tolosako Erregina aukeratzeko zela. Atzoko egunez izaten zen aukeraketa, eta ondorengo desfilea, danborradaren ulean. Tolosako

elkarrekin ordezkatuz aurkezten ziren lehiaketara, eta Erregina gain, Erregina Txikiaren saria ere egoten zen gaztetxoentzat. Irudian, 80. hamarkadako Tolosako Erreginaren une bat.

Jeiki jeiki



» Uzturretik

Andu Martinez de Rituerto

Jeiki jeiki oi ortatik gaur tolosarrak Inauteriak, beti! alaitzen gaitu guztiz! Jeiki jeiki oi artatik gaur tolosarrak goazen festara dano goizetik...

Berri paper hau hartzerako Alde Zaharreko kaleetarik barna Uxolaren bertsoak gogoz abestu ditugu jadanik. Tolosarra ez banaiz ere, dianan tripa tximeletaz betetzen zait, emozioak gainezka egiten dit; zer izango ote da tolosarrentzat...

Gaur festarako gaude; baina idatzi hau gaurko egunez egokitu zaidanez, Juan Garmendia Larrañaga etnografo tolosarraren *Neguko festa* lanetik jasotako inauteriarren inguruko kontu batzuk ekarriko dizkizuet.

«Inauteri edo karnabalak izan dire noski gizarte jairik osoenak eta borobillenenak. Guzia berekin baitute: parrealgara, basatikeria, maltzur-jokoa, izua, kezka-bide eta zitalkeria. Berrietan baidiraute totem edo diralako aitzin-kutsudun sentipenik zaharrenak». Pio Barojaren hitzak dira. Aukeran, parrealgara, dantza eta maltzur-

jokoekin nahiko eta sobera festaz gozatzeko.

Beste ikuspegi batzuk ere izan dira. Ramon Artola Larrañagak XIX. Mendean idatzitako bertsoetan ederki azaltzen da zer eta nolako zen (den) aratozteia edo karnabala:

Guziz egoki daki/gezurrak kontatzen/ egokiyago berriz/dantzan ta kantatzen./ Eta egiten beste/norbaiten papera/ iruri arazten du/beste dala bera./ Ailegatzen deanean/inautegi pesta/echean asko aldiz/ikusiko ez da./ Denetan egiten du/norbaiten papera/jantzi mudatu asko/oi ditu atera.

Garmendia bera horrela mintzatu zen: «Axolagabekeria, beste izana, itxura eta hizkera hartzea, maskaraz moztortzea, dantza eta pantomima xeble bezain farregarriaz kalez-kale ibiltzea, musikaz alaituta, hori da ezagutzen ditugun inauteriak. Karnabalak ez inbestekoa du giza-askatasuna».

Artola eta Garmendiaren hitzek oso ondo islatzen dute Tolosako inauteriarren espiritua. Gure garunaren barrunbeen nondik norakok aztertzen dabiltzan zenbaitzuen arabera, badirudi moztortza jantzita errazago azaltzen dugula gure izate propioa. Aspertu baino lehenberaz, trapu zahar edo berriak jantzi eta kalera irten zure izatea lotsarik gabe askatzea eta festaz gozatzera. Hori bai, besteen izatea ere kontuan hartzea komeni izaten da. Gora inauteria!

«Inauterietan taldean ibiltzea da ia onena, horiek dira momenturik onenak»

MARI CARMEN JIMENEZ Inauterizalea

NEREA URBIZU

Mari Carmen Jimenez urte batekin etorri zen bizitzera Tolosara (Cervera del Rio Alhama, Errioxa, 1950), baina tolosar sentitzen da.

Zer sentitzen duzu Inauterietan?

Ez dakit nola azaldu: ostegunean, hasi aurretik eta asteazkenean ere zerbaite sentitzen da sabelaren inguruan. Asteazken gaueko txupinazoa entzun nuen eta korapilo moduko bat sortu zitzaidan. Behin egon naiz Tolosatik kanpo Inauterietan eta orain, bidaiatzeko aukera banu ere, ez nintzateke joango.

Anekdotaren bat izango duzu...

1969an 18 urte nituela ez zen ia emakumerik moztortzen eta gu, emakume talde bat, arabiarrez atara ginen nahita, aurpegia estaltzeko. Ez zen arrunta neskak moztortuta ikustea. Donostian erosi ginen oihal merke batzuk.

Zein da irauteko sekretua?

Irauten dut egunero oheratzen



HITZA

naizelako. Astearte eta urtean egun bakarra etxetik ohea egin gabe ateratzen naizena, txaranga-ekin zezenetara joateko. Bestela, ordu guztietan eta egunero: gaztetan, behin nire bikotea zenarekin zinemara joan ginen Inauterietako egun batean atsedean hartzeko, pentsa!

Inauteriak asko aldatu al dira?

Inauteriak ez dira asko aldatu. Nik uste dut tolosar guztiok egitarau buruz dakigula. Aldatu dena jendearen poltsikoa da: orain gehiago dauka jendeak eta gehiago erosten da, batez ere osagarriak. Lehenago irudimena gehiago lantzen zen eta ez zen ia ezer ere erosten.

Inauterietako momenturik onenak zein dira?

Oena da taldean ibiltzea, bazkaltzea eta denen artean komentatzea ez dakit nor ikusi dudala, ez dakit zein ibili dela... Denon artean sortzen dugun festa da. Horiak dira Inauterietako momenturik politenak. Tolosako Inauteria ez da desfile bat, bakarka doan jende moztortu on asko dago.

Gogoan duzun zure moztortu bat?

Andere dotorez jantzi nintzeneko; amabitxien arropa neraman soinean, traperotan erositakoa, artilezko txapela egin nuen... Tu-reamdin izan nintzen eta han oso ondo pasa nuen urte hartan. Bestela, pailazoaren moztortu asko gustatzen zait, beti dut batena bat. Ez dago inoiz garaitik kanpo.

Txilaba zertarako?

Hori ere beharrezkoa da. Triste xamar baldin bazaude, edo gogo handirik gabe, txilaba jantzi eta



Moztortuta, bere amarekin. HITZA

dena ahaztu egiten zaizu. Ez ditu arazoak konpontzen, baina ondo pasatzeko eta arazoak alde batera uzteko balio du.

Zer esango zenieke moztortu behar ez den egunetan moztortuarekin datorren jendeari?

Ezer berezirik ez. Nahi dutena egin dezatela, horiek ez dira Tolosakoak eta guk hori badakigu.

» DI-DA BATEAN

Zer ezin da falta? Musika. Hemen duguna ikaragarria da, txapelak kentzeko modukoa.

Egun bat. Denak, baina aukeran astelehena.

Gaua ala eguna. Eguna.

K Komikia

Martin Mantxo



Zaldunita Bezpera egunean giro polita izan da azokan

Azoka » Eskaintza ez zen gehiegi aldatu, eta pasa den asteko zerrenda zabala izan zen atzokoan ere nagusi.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna jai giroan ospatu zen Tolosan. Inauteriak direla eta, atzo Zaldunita Bezpera egunean jende asko zebilen kalean, eta goiz osoan oso giro alai izan genuen postuetan.

Eskaintza ez zen aldatu atzo, eta joan den asteko zerrenda zabala aukeran izan zen. Barazki asko, dena negukoak; aipatzekoak baratxuri freskoak, porru eta azenarioentamaina, eta aukeran egon ziren mota askotako azak.

Atari kalean ere izan zen animazioa. Baso espezie asko eta frutabola ugari egon ziren. Frutabolak 5 eurotan saltzen ziren, kiwiazik, hau 10 eurotasaldu baitzen.

» ATZOKO AZOKA

	Merk.	Gares.
Berdura plaza		
Landareak		
Landina	10,00	-
Ziklamena	2,20	5,00
Erromeroa	4,00	6,00
Krisantemoa	3,00	12,00
Gerbera	12,00	-
Biola	3,00	-
Salbia	1,00	1,20

Bertako produktak

Fruta		
Errezil sagarra	0,80	8,00
Matxakana	6,00	-
Pikua	2,00	-
Mizpiradia	3,00	-
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak

Tolosako babarruna	10,00	12,00
Ibarrako piparrak	4,00	-
Azenarioa	1,20	7,00

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Arroza	1,90	2,00
Tipula	1,75	2,00
Azenarioa	2,00	2,50

Reala eta Atletico Madril, lehian

TOLOSA » Futbol zaleek hitzordu polita zuten herenegun gauean Usabal kiroldegian, izan ere, Atletico Madril eta Realaren arteko partida ikusteko aukera izan zen. Kasu honetan, jokalar beteranoen arteko lehian izan zen, I. Futbol Indoor Txapelketako partida, hain zuzen. Txapelketa honetako partidak etxean jokatuko dituen Realak Usabalen jokatuko ditu. Lehenengo mailan inoiz txapeldun izan diren taldeen artean antolatuta dute txapelketa hau. Beraz, duela urte batzuk jokalar handiak izan zirenak ikusteko parada bikaina. **E. EZEIZA**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



KOLPEZ KOLPE GIROTZEN



ESTREIBEA

San Frantzisko kalean izan ezik, gainontzeko Tolosako txokoetan ez zen umetarik ageri atzo arratsaldean, 17:00ak inguruan. Izan ere, denak San Frantzisko ibilbidean zeuden danborrak lepotik zintziarik eta eskutik bakoetik zintziak. Ordua baino lehenago, ibilbideko izkiak jendez beteta zeuden, denak ere danbor-jotzaile txikiak ikusteko samoz. Esan bezala, 17:00ak puntu puntan zirenean, musika eta danbor soinua hasi ziren entzuten, orduantxe abiatu baitziren kalean behera. Kantinorak aurretik zituztela denek ere gogotsu eta indararekin astinduz zuzten instrumentuak.

Sanamieg, Ledorain eta Hiru-kidde ikasleek hartu zuten parte atzoko saioak. Orozta, 500 haur inguru atera ziren desfilean. Hauek, gainera, eta 12 ure-bikoteak. Aiz-Orratz elkarateak 32 urtez amonatu du festa hau Inauterietan, eta atzo San Frantzisko ibilbidean zuen itxura ikusita, esan daiteke, arrakasta handia duen saioa dela. Kale gutxi jendez josta baitzuzten. Atzokoongo guzira, iz ez bezala eguraldiak ere lagundu zuen, nahiz eta jendeak goizean aste, atzoko onerarekin gaitasun behar-kozuela desfilea.

Desfileari amaiera emanez, traktote batek Popeye marinelaren larrazo zaraman. Hosen ginean, joan den larunbatean, Leidor antzokian egindako mozorro lehiaketaren irabazleak zihozten. Horien artean, palazoa, pitxesa eta itxusneska. Hauek, bidean zehar jendeari goxokiak eta konfetiak botatuz joan ziren. Pielanale-pielanale desfileko kideak nahiz gerturatu ziren ikusleak Triangulo plazara bideratu ziren, bertan, ilustretze gutxielako haurrak bildu eta denak batera jo baitzituzten Inauterietako doinuak. Hauek, danborra jotzen zuten bitartean, kantinorak Kultur Etxeko baloira igo ziren, eta handik ikusi ahal izan zuten saioaren amaiera.



"Jeiki guztiok...
...goazen festara
danek goizetik"



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net



Jende ugari bildu zen atzo arratsaldean hauren danborrada ikusteko. ir. OZTZA



NEREA URBIZU

Tolosaz beti esan izan da txikia izanik ere, musikarako eta arterako zaletasun eta balio handia egon dela eta dagoela. Inauterietan lotutako artistak ere eman ditu Tolosak, esaterako, Juanito Lope eskultorea (Tolosa, 1917).

Tolosar honen ibilbidea

20 urte ingururekin hasi zen gehienbat eskulturak egiten. Gorriri zinemaren makinista hasi zen eta orduantxe ezagutu zituen Disney-ko marrazkiak eta hauek irudikatzen hasi zen, gustuko zituen, antza. Gerrakogertaerek eta polio-melitisak bere eskuineko hankan izateak armadara joatea behartu zuten, laguntza zerbitzuetarako. Han arotz trebatu bat ezagutu zuen eta harekin ere ikasi zuen.

27 urte zituela Lopetegi eskultorea bere tailerraren aurretik pasa zen eta klase batzuk eman nahi izan zizkion donostiarrak tolosarrari. Honela, eskaiolarekin hasi zen eta ospe pixka bat hartzen hasi zen bere inguruko artean. Benlliure ere honen balioaz enteratu zen eta haren bila joan zen, Madriler joateko esanez. Madrilen denbora gutxi egin zuen, baina nahikoa izan zen, gustukoa ez zuela ikusteko, eta herrimin handia sentitzen zuen.

Txortxi bere lagun sagardotegian buztinari heldu zion berriz, eta Cirineo lan handia hasi zen egiten. Enkarguak jasotzen hasi zen eta lan asko egin behar izan zuen.

«Inauterizale berezia»

1.966an Tolosak Agintari kalea eta Santa Maria kaleen arteko pasadizoari Juan Lope izena jarri zion. Bertan bere aurpegiaren erliebeko eskultura txiki bat dago.

1.981. urtean hil zen eta Tolosako txarangek omenaldia egin zioten, Inauterietan zuen lotura handi eta estu hori kontuan hartuta. *Inauterizale berezia* izendatu zuten urte hartan.

Karroza dotoreak egin zituen

Juanito Lope eskultore ezaguna izateaz gain, Inauterizale amorratua izan da, aldiro parte hartzen jai hauetan. Berak «ondo» pasatzeaz gain, besteek ere «oso ondo» pasatzen zuten berarekin. Berak esanda zuen bezala «1944etik aurrera lagunekin hasi nintzen ateratzen eta handik aurrera urtero atera



Dantzari omenaldia, erliebea zezen-plazaren ondoan. N. URBIZU

Juanito Lope herri-eskultorea izateaz gain, inauterizale amorratua izan zen. Tolosarra eta 1981ean hil zenak urte berean 'Inauterizale berezi' izendatu zuten: bera hasi zen Tolosako Inauterietan karroza landuak egiten.

Umorea arte bihurtuz



Felipe Dugiols Balanzategi, San Frantzisko elizaren parean. Pemando Amezketarra, Frai Frantzisko Tolosakoa, Gargantua eta ezkontzaz mozorrotuta. N. U./HITZA



naiz». Konpartsetan, karrozetan, eta edozein ekitalditan zegoen.

Juanito Lopek hainbat karroza egin zituen eta asko oraindik ere ezagunak dira, batez ere, *Gargantua*. *Giza tankea*, *Tabakalera*, *Bataioa*, *Sorgina* (Urdina Txiki elkar-tea), *Gure Kaiolakoen zirkoa*...

Garai batean ere umorearekin lotuta baina, arte serioagoarekin lotuago zeuden lanak egiten hasi zen, «jendeak eskatuta», baina Lopek orduan aitortu zuen bezala «nik umorezko lanak jorratzea nahiago dut».

1966an Tolosak Agintari eta Santa Maria kaleen arteko pasadizoari Juan Lope izena jarri zion

Pertsonaiak eskulturen bidez hilezkortu nahi izan zituen, baina, batez ere, Inauterizalea zen Lope

Inauterizale amorratua, izpiritu umoretsua zuena, hurbilekoa, eta batez ere, bere herriko inauterietan gozatzen zuena zen Juanito Lope. Horrez gain, Tolosaldeko pertsonaiak eskulturen bidez hilezkortu nahi izan zituen eskultoretako bat izan zen, baina horren gainetik Inauterietan zituen gogoko.

Inauterizale gehientsuenek bezala, astelehena zen gogokoan zuen eguna: «Igandea eta asteartea kanpotarren artean galtzen gara eta astelehena da benetazko egun tolosar bat». Loperi buruzko informazio gehiago Iñigo Gabarain tolosarrak bildutako www.eskulturaurbana.com/Webs/weblope/webgunean aurki daiteke.

Citroën C4 Picasso 5 eserlekudun berria

VISIOSPACEA

Angeluhandiko haizetako paronamikoa



5 EDO 7 ESERLEKU MUGIKOR • 7 AIRBAG • ESP • ASR • FRENATZEAN BEROKETA ELEKTRONIKOA DUEN ABS ETA AFU • 6 ABIADURAKO ESUZKO ALDAGAILU GIDATUA • NAHIGABEKO BIDE ALDAKETETAN ABISUA • AURREKO ETA ATZEKO GERATZEETAN LAGUNTZA • ALBOKO LEKUAREN NEURKETA APARKATZEAN • ALDAPETAN ATERATZEAN LAGUNTZA • NAVIDRIVE ESKUIBREKO GSM TELEFONOAREKIN • IRRATI CD MP3A BLUETOOTH-AREKIN ETA AGINTEA BOLANTEAN • BI-XENON ARGIAKNORABIDE AUTOGIDATUAREKIN • KLIMATIZAGAILU AUTOMATIKOA • KRISTALEZKO SABAI PANORAMIKOA • ATZEKO ESEKIDURA PNEUMATIKOA • GASOLINA MOTORRAK 143 ZALDIRA ARTE ETA DIESEL 138 FAP ZALDIRARTE



CITROËN Grand C4 Picasso 1.600cc



CITROËN C4 Picasso 1.600cc

IROVI, S.A. Citroën Konzesionario Ofiziala • Industrialdea z/g. Tel.: 943 65 18 42. Anoeta / Tolosa

CITROËN



Txarangaren musika mozorrotzen duten taldeak

Konpartsa-txarngak» Sukaldeko eta San Esteban auzoko koadrila batzuk urteak daramatzate konpartsa musikalak ateratzen.

JOXEMI SAIZAR

Musika eta mozorroa dira Inauterien oinarrietako bi. Musika jotzen duten txarngak eta mozorrotzen diren konpartsak eta karrozak. Ba dira biak uztartzen dituzten taldeak, konpartsa-txarngak edo txaranga-konpartsak dei ditzakegu. Horietakobi ekarri ditugu orrialde honetara, aspaldidanik modu horretara ateratzen diren Sukaldeko eta San Esteban auzoko koadrilak.

Sukaldeko koadrilak 30 urte baino gehiago darama musikariak dituen konpartsa ateratzen. «1973an sortu genuen Sukalde eta ordurako ateratzen ginela uste dut», dio Jose Luis Telleria taldekideak. Koadrilako batzuk Astelenitan Umore ona rondallan ateratzen ziren, Jose Antonio Garatek zuzentzen zuen gitarra, laud eta bandurria taldea. Hura desagertu zenean egun hori «libre» gelditzen zitzairen, nolabait esateko. Hori betetzeko, aspaldidanik buruan bueltaka zebilkiten ideia gauzatu zuten: «Enrique Ugarteren emazteak arropadenda zuen Beotibar kalean eta amonetzako arropa saltzen zuen. Han asko ibiltzen ginen eta beti esaten genuen noiz-pait amona bezala atera behar genuela Inauterietan. Hura zen aukera. Amonaz jantzi eta danborra jotzen atera ginen». Geroztik hala jarraitu dute: mozororen bat eta beti danborra jotzen. Denborarekin musikariak gehitzen joan zaizkie. Telleria eta Ugarte beraiekin Patxi Garmendia, Eduardo Perez eta beste batzuk ateratzen dira, eta musikari bezala Kike Ugarte atera izan da akordeoiarekin, Miguel Gorostidi saxoarekin, Gregorio Arrieta eta bere semea Javier bonbardinoarekin... Inauteri musika, *El conejo de la Loles*, *El carrito del helao*, *Tatiago* danborrekin musikariak nekatuta daudenean... jotzen dute. Hogeita piko atera izan dira guztira.

Urte luze hauetan danborra jotzeko amonak, aitonak, mutikoak, neskek, marinelak, erromatarrak, piratak, indiarrak, txinatarrak, Kastillako herri batekoak... eta iaz arabiarrek bezala atera dira. Aurretan Casanova bezala izango ditugu Astelenitan eta dozena inguru izango omen dira.

Normalean eguerdi aldera ater-

ratzen dira elkartetik eta txarngak bezala ibilbide finkoa egiten dute: Rondilla kaletik gora Gernikako Arbolarara, zezen-plaza, Berazubi, Lopez-Mendizabal eta Alde Zaharrera. Tartean, elkartean bertan bazkaltzen dute.

Musika gai hartuta

San Esteban auzoko koadrila 1995ean atera zen lehen aldiz gaur egun ateratzen den bezala: hamar musikarieta bere lagunekin (orain haurrek ere tartean) guztira 50 lagun inguruko konpartsa osatzen dute. «Gehienak musikariak ginen, Iraunkorrek txarngan ari garenak edo aritu direnak, eta gai baten inguruko piezak prestatu eta ateratzea pentsatu genuen. Lagunei ere ideia gustatu zitzairen eta gaur arte», dio Pello Gorostegi bonbardinoleak. Beti Zaldunita egunean ateratzen dira.

Lehen urte hartan Euskadi tropikalaz atera ziren, jantziaren erdia euskal dantzariarena eta bestea samba dantzariarena zuten. Oso eguraldi txarra egin zuen eta Euskal Herria plazako arkupeetan ibili omen ziren gehiena. Ondorengo konpartsa gehienak ere gogorazten dituzte: Boney M, Duo dinamico, mexikarrak, Village People, TVEko pailazoak, areto dantzak, George Dann eta barbakoa, tirol-darrak, New Orleanseko hileta, iaz The Blues Brothers... Gai pentsatze gogorazten txarngarekin jotzeko moduko musika aukeratzen dute, doinu ezagunak.

Aurtengoa aurreratu digute: mariari txiak. «Jende helduari asko gustatuko zaio, musika ezaguna delako. Gazteagoi berriz, asko gustatu zaie The Blues Brothers edo Village People, modernoagoa delako», dio Gorostegik.

Zaldunita egunean, San Esteban auzoko lokalean bildu, Ferialekuan, hamaiketako egin (Bonberenea txarngaren bisita jasotzen dute orduan) eta kaleratzen dira. Ibilbidea ere finkatu xamarra izaten dute: Lopez-Mendizabal ibiltozia, Alde Zaharra, bazkaria lokalean, Berazubi, Nafarroa etorbidea eta Alde Zaharra. «Aurreneko urtean, bukaeran, gaueko bederatzia aldera, Lainoa eta Elurra tabernen artean geundela, Rafa Mendibil balkoi batera igo eta Pa-



San Esteban auzoko koadrila iaz. Berrogeita hamar lagunetik gora atera ziren The Blues Brothers bezala. HITZA



Hiruzpalau instrumentu eta danbor ugari ateratzen dituzte Sukaldekoek. HITZA

quito el chocolatero jo genuen. Geroztik jendeak eskatu egiten digu eta gauza bera egiten dugu. Jende asko biltzen da une horretan», dio musikariak.

Prestakizun handirik ez dute izaten San Estebangoek. Musikariak pentsatzen dute gaia, besteik komentatu, jantziak eginarazi, erosi edo alokatu eta eguna iritsi arte ez dira denak elkartzen. Irteera momentuan egiten dute entsaio modukoa. Aurten doinu mexikarrek hitzak atera dituzte eta taldekideek kantatzea nahiko lukete, baina zaila ikusten du Gorostegik, orain arte aktiazorik edo horrelakorik egitea ez dutelako lortu. Konpartsa-txaranga honen beste elementu garrantzitsua garagardokupelak eramateko gurdia izaten da. «Tirol-darrez atera ginenean ateragenuen eta geroztik beti atera izan dugu. Arrakasta handia izaten du. Aurten gurdia dena txikitu egin digute eta berria egin behar izan dugu», dio.

La que se fue, Tu camino y el mio, Ella, El rey edo *Caballo prieto* jotzen ari direnean hurrengo urteko gaia pentsatzen joango dira: Orquestra Mondragon, Alaska y los pegamoides, Antonio Machin...

TXARANGEZ, KARROZEZ, GIROAZ...

Zertan aldatu den Inauteria galdetuta, txarngak «lehen erakarpenik» ez dutela dio Jose Luis Telleriak, lehen bezala ez dela jendea atzetik saltoka joaten. «Lehen besterik ez zegoen, blusa jantzi eta txarngan atzetik joan». Lehen jotzen zuten modua (bere aitagarra Miguel Martinez, Juanito Colmenero eta haien garaian), polikiagoa gehiago gustatzen zaiola eranstun du. Giroa aldatu egin dela dio Sukaldekoak: «Garai batean Casinon, Txinpartan eta beste hainbat elkartetan dantzaldiak izaten ziren eguerditan eta batzuetan gauetan ere bai. Geroago frontoian ere bai. Beotibar orkestina, Zurutuza eta horiek, kanpoko taldeak... etortzen ziren. Batzuetan txandatzeko eta guzti izaten ziren. Orain beste era batera izaten da, baina giro polita dago baita ere».

Karroz gaia ateraz, «koreografia eta dantza abusatzen» dela dio: «Tarteka ikusten da kolpe bat graziarekin, baina dantza besterik ez egitea... 60an edo ballet dantzariek atera ginenean ondo egon zen, entsaiauta, gure erara. Gregorio Arzuaga Gaztelako arkuo kaiolan presidiarioz atera zenean, Juanito Lopek ustekabea ematen zuenean... Orain gazteriarri paso eman behar zaio».

San Esteban auzoko Pello Gorostegik 26 urte daramatza Sukalde txarngan ateratzen. Ero Etxe eta Txinparta ere atera izan da eta Veletan ateratzen da. Musika jotzen «oraindik» gozatu egiten duela dio. Korrika jotzeko ohitura berria ipatu du. Gueuz berriz, Inauterietan lehen lputargiak eta orain Iraunkorrek txarngarekin ateratzen da. «Lehen larunbat gauean beste herrietako jende gehiegi etortzen zen. Orain berriz, beste herri batzuetan ere egiten dira Inauteriak (Donostia, Hernani, Andoain) eta lasaiago ibiltzen gara. Hala ere gaeuz jotzea gogorra da, jendea asko sartzen delako gurekin, bultza egiten du», dio.

Garai batean ikasleek eta taldeek beheko solairuetan jartzen zituzten tabernen falta nabari du, «sortzen zuten giroagatik». Kaleko prodia herrikoiak ditu gustuko eta karrozen inguruan, «sekulako meritu» dutela dio, «ordu pila sartu eta lan handia hartzen dutelako, eta gero askotan ez da behar bezala ikusten eta aprobetxatzen lan hori».



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Inauterietan jendearen parte-hartzea

Zer izango lirake Inauteriak herriarren parte hartzerik gabe? Seguruenik ez lukete gaur egun dutena izango. Karrozak egitea, moztarria prestatzea, dantza... hori guztia da beharrezkoa Inauterien xarma ez galtzeko. Baina, eraberean, ikusleak izatea ere beharrezkoa da, zuk egiten duzuna erakusten duzu, baina ez baduzu inor begira, akabo. Atzokoa, honen adibide izan zen, haurren danborradan jende ugari izan baitzen ikusten. **EZEIZA**

Batzuen lana une batean zapuztua

Gaurko Bera karrozak eta konpartsa lapurtu eta hautsi dituzten horientzat da. Urte osoan zehar gordeta egoten dira hurrengo urterako aprobetxatzeko, baina askori gertatu zaie lapurtzea edota haustea. Atsekabe handia izan da hauentzat. Karrozak gordetzeko leku egokia exijitu diote Udalarri karroza egileek, eta badirudi, Inauterien ostean lekua prestatu-kodela. Eaez den berriro errepikatzen horrelakorrik. **EZEIZA**



A Agenda

Inauteriak

■ **Tolosa.** Gaurko egitaraua: 08:00. Diana, Tolosako Musika Bandarekin. 08:45. Herriko Txistulari Bandak ohiturazko ibilbidea eginez Inauterietako Zortzikoa joko du. 10:00. Txarangen irteera. 10:30. Plaza Berrian sokamuturra. 11:00. Karroza eta konpartsen irteera. 15:45. Udal Txistulari Bandak Idiarena pieza joaz egingo du ohiturazko ibilbidea. 16:00. Kalejira, Alcoyano, Urdiña Txiki, eta Sukalde txarangekin, Plaza Zaharretik zezen-plazaraino. 16:30. Zezenak zezen-plazan; txaranga eta txistulariak ariko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren. Kalejira. 19:00. Dantzaldia Berdura Plazan Alcoyano, Urdiña Txiki, eta Sukalde txarangekin. 19:30. Zerkausian Trikutxiki diskojaia. 23:30. Incansables eta Oriako txaranga kalez kale.
■ **Tolosa.** Garraio publikoa (zerbitzu bereziak): **Hiribusa:** Zubi Berria- Usabal- industrialdea- Amaratz (behean)- Kondeaneko alda- Zubi Berria 10:30etik 14:30era eta 16:00etatik 22:00etara. **Tolosalde Bus** (Gaueko zerbitzu berezia): Tolosa (Zumardi Txikia)- lurre- Amaratz- Alegia- Amezketa- Ikaztegieta 00:00etan, 02:00etan eta

03:30ean. Tolosa (Zumardi Txikia)- lurre- Amaratz- Ibarra- Berrobi- Eldua- Elduain- Berastegi 01:00etan, 02:45ean eta 04:15ean. **TSS:** Tolosa (Santa Klara)- Anoeta- Irura- Villabona- Zizurkil- Asteasu: 23:30etik 04:30era 30 minutuero. Asteasu- Zizurkil- Villabona- Irura- Anoeta- Tolosa: 23:00etatik 04:00etara 30 minutuero. **Trena:** Tolosa- Irun: 14:15, 20:24, 21:25. Tolosa- Andoain: 19:16, 20:06 eta 20:46. Donostia- Tolosa: 10:52, 22:41. Andoain- Tolosa: 11:48, 12:28, 15:28, 17:18, 17:48. Tolosa- Beasain: 14:10, 14:42, 19:52, 20:30, 21:12. Beasain- Tolosa: 11:18, 11:58, 12:58, 15:28, 16:11, 16:48, 17:58. Brinkola- Tolosa: 22:50. Gaueko zerbitzu berezia: Tolosa- Irun: 01:00, 03:00, 05:00. Tolosa- Brinkola: 03:10, 05:20.

Santa Ageda

■ **Alegia.** Txintxarri Abesbatza santa-eskean ibiliko da bihar, 19:00etatik aurrera.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, MT. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
■ **Lekunberri.** Mendia, MI. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Otsailean zure kioskoan



Egin zaitetz harpidedun:
hitzaren harpidedunentzat eskaintza berezia: **18 €/urtean**

Deitu **943 30 35 54**

A Agurrak



Urte askoan!

Ander Mujika (Abaltzisketa).
Gaur 3 urte. Ondo pasa eta muxu pila bat denon partetik.



Urte askoan!

Tere Albizu (Tolosa).
Zorionak eta muxu handi bat. Zure familia.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...